- + DIGITAL@ PROGRAMA
- NEGOZIO EREDU BERRIAK
- ENPRESEN TRANSMISIOA
- KUDEAKETA AURRERATUKO PROGRAMA
- KOMUNIKAZIOA KANPAINA
- MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK MODERNIZATZEKO PROGRAMA
- ZONALDE BATZUETAN HIRI MERKATARITZAKO LANKIDETZA, DINAMIZAZIO ETA LEHIAKORTASUN ESTRATEGIAK GARATZEA
- MERKATARITZAKO BEKAK
- MERKATARITZA BULEGO TEKNIKOAK
- MERKATARITZA ARLOAN EZAGUTZA, BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUNA SUSTATZEA ETA ZABALTZEA

# +DIGITAL@ PROGRAMA

- **Helburua**: ***ETEe***i eta ***enpresa-elkarteei*** Elektronika, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (EIKT) ezartzen laguntzea. Ekimen hau Gobernu Kontseiluak onartutako 2015erako EUSKADIKO AGENDA DIGITALA (2015 EAD) plan estrategikoan jasota dagoen e-Enpresa izeneko ardatz estrategikoarekin bat dator.

- **Tramitación:** SPRIren iragarkia.

- **Aurrekontua: 1.100.000 €**

# NEGOZIO EREDU BERRIAK

- **Helburua**: Merkatuan berritzaileak diren negozio-eredu berriak sortu eta ezar daitezen bultzatzea, ekonomia eta ingurumen arloetako jasangarritasun-irizpideetan oinarrituta, eta merkataritza hobetzen laguntzea, kalitatezko eskaintza lehiakorragoa, bezeroei eta merkatura zuzendutakoa, garatzen laguntzeko.

- **Tramitazioa**: lizitazio publikoa.

- **Aurrekontua: 2250.000 €**

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

# ENPRESEN TRANSMISIOA

- **Helburua**: Bideragarriak diren merkataritza arloko enpresen jarraitutasuna eta hazkundea bermatzea, eta hala, haien ingurune ekonomikoa eta enplegua sendotzea.
- **Tramitazioa**: Lankidetza-hitzarmena Eusko Ganberekin.
- **Aurrekontua: 250.000 €**

# KUDEAKETA AURRERATUKO PROGRAMA

- **Helburua:** Programa honen helburua enpresaren kudeaketa eta dendariaren jarrera profesionala hobetzea da. Kudeaketa aurreratua eta negozio-ereduaren birdefinizioa ditu oinarritzat, eta baliabideak efikazia eta eraginkortasunaren arabera ardaztea proposatzen du, horrela, enpresa ingurune global eta oso lehiakor batean kudeatu ahal izateko.

- **Tramitazioa**: Lankidetza-hitzarmena Euskalitekin.

- **Aurrekontua: 250.000 €**

# KOMUNIKAZIOA KANPAINA

- **Helburua**: Euskadiko merkataritza txikizkariaren jarduera.
- **Tramitazioa**: lizitazio publikoa.
- **Aurrekontua**: **340.000 €**

# MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK MODERNIZATZEKO PROGRAMA

- **Helburua**: EAEko merkataritza-establezimenduak, berrikuntzaren eta kudeaketa-tresnak eta azpiegiturak hobetzearen bidez, moderniza daitezen bultzatzea.
- **Tramitazioa**: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Sailburuaren agindua.
- **Aurrekontua: 3.750.000 €**

# ZONALDE BATZUETAN HIRI MERKATARITZAKO LANKIDETZA, DINAMIZAZIO ETA LEHIAKORTASUN ESTRATEGIAK GARATZEA

- **Helburua**: Merkataritza-intentsitate txikiko hiri-inguruneetan eta eremuetan merkataritza arloko lehiakortasuna hobetzeko, hiri-merkataritzako lankidetza eta dinamizazio estrategiak garatu daitezen sustatzea.

- **Tramitazioa**: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Sailburuaren agindua.

- **Aurrekontua**
  - **Udalak: 2.080.000 €**
  - **Merkatarien Elkarteak: 1.660.000 €**

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

# MERKATARITZAKO BEKAK

- **Helburua:** Euskal Autonomia Erkidegoan Merkataritzako Banaketa Sektorearen profesionalizazioa hobetzen laguntzeko beharrezko baldintzak sortzea, kontuan izanda xede horretarako enpresen kudeaketaren askotariko alderdietan ondo kualifikatutako profesionalak behar direla
- **Beka kopurua**: 33,  eta 15.000 €/bekako hornidura.
- **Tramitazioa**: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Sailburuaren agindua.
- **Aurrekontua: 483.000 €**

# MERKATARITZA BULEGO TEKNIKOAK

- Programaren **xedea** merkataritzako banaketa sektoreari eta sektore horretako elkarteei laguntza teknikoko doako zerbitzua ematea da. Zerbitzu hori langile kualifikatuek emango dute.
- Merkataritza Dinamizatzeko Bulego kopurua: 33
- **Tramitazioa**: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Sailburuaren agindua.
- **Aurrekontua**: **1.270.500 €**

# MERKATARITZA ARLOAN EZAGUTZA, BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUNA SUSTATZEA ETA ZABALTZEA

- **Helburua**: Programaren xedea EAEko merkataritza arloko talde, elkarte edo federazioek eta merkataritza-ganberek merkataritza arloan berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzera bideratutako ekintza dibulgatiboak egin ditzaten sustatzea da, adibidez: jardunaldi teknikoak, tailerrak, mintegiak, eztabaida-foroak, mahai-inguruak, kongresuak....

- **Tramitazioa**: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Sailburuaren agindua.

- **Aurrekontua**: **250.000 €**